

Zientziaren Astea Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

2011/11/18

Biztanleriari zientzia, berrikuntza eta teknologia modu didaktikoan ezagutzera ematea. Erronka horri heldu nahi dio Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak 11. Zientziaren Astearekin, azaroaren 21etik 23ra, astelehenetik asteazkenera, alegia.

Goi Eskola Politeknikoko ibilgailu elektrikoa aurkeztuko dute. Era berean, laborategietara bisitaldiak antolatu dituzte, energiakora, telekomunikazioetakora eta konformazio eta mekanizaziokora, hain zuzen. Halaber, aurtengo ekitaldian Kimikari eta Ingeniaritzari buruzko erakusketa egingo da estreinakoz, Kimikaren Nazioarteko Urtearekin bat. CSICek (Zientzia Ikerketen Goi Zentroak) Kimikaren eta Ingeniaritzaren inguruan prestatu duen erakusketa da, Goi Eskola Politeknikoaren jarduerara egokitu dutena.

Telekomunikazioen laborategian hainbat esperimendu egingo dituzte, hala nola, jostailuzko automobila telegidatzea, ultrasoinuak neurtzea, telefono mugikorrarekin ateak zabaltzea eta kontrolatzea, ikuspenez gidatutako automobila erabiltzea, eta baita ikasleek egindako walki talkiak eta bideojokoak ere, objektuak 3Dn sortzea, edota zaintzarako kamara duen automobila wifi bidez telegidatzea. Bestalde, konformazioko laborategian bi saiakuntza eramango dituzte aurrera: metalen errekuntzaren ingurukoa bata eta presio-bidez xafla harrotzeari buruzkoa bestea.



Zientziaren Astea 2011